

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

3851

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 27koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioko esparru-estrategien finantzaketa-lerroko laguntzen 2017ko deialdia ebazten duena.

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen ditu, garapenerako lankidetzaren kargurakoak, eta bi jarduera-mota bereizten. Alde batetik, larrialdietan laguntzeko proiektuak daude, zeinen bidez, biziraupena bermatzeko eta hondamendiek eragindako sufrimendua eramangarriago egiteko, oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak eskuragarri jarri nahi baitira urgentziaz. Bestetik, ekintza humanitarioetarako proiektuak daude, zentzu zabala-goan; horri lotutako jarduerak larritasun-maila txikiagokoak dira, eta garapena, giza eskubideak eta bakegintzaren oinarriak sustatzeko dira.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2017ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez egin zen garapenerako lankidetzaren programetarako laguntzak emateko 2017ko deialdia (2017ko apirilaren 25eko EHAA, 78. zk.).

Laguntzak emateko egindako proposamena ikusirik, zein deialdi-ebazpenaren 5. artikulua ezarritakoaren arabera egin baita; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Zerbitzu Teknikoak, laguntza-eskabideei dagokienez, egin dituelarik balorazioa eta azterketa teknikoa; eta 2017ko uztailaren 13an egindako batzarrean Artezkaritza Kontseiluari argibideak eman ostean, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2017ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak esleitzea. Laguntza horiek ebazpen honetako I. eranskinean jasotako erakundeei emango zaizkie; betiere, eranskin horretan aipatutako zehaztapenekin bat etorritik.

Bigarrena.– Diru-laguntzak ukatzea II. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Deialditik kanpo uztea III. eranskinean jasotzen diren erakundeen eskabideak, eranskinean bertan adierazitako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraz, beraren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsioa jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela esan nahiko du, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzietako bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 27a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2017ko uztailaren 31, astelehena

I. ERANSKINA

DIRUZ-LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Herrialdea	Puntuak	Diru-laguntza
EHE-2017BA/0006	Asociación Comité español de la UNRWA	Estrategias de empoderamiento para reducir vulnerabilidad de las mujeres gazatíes. Fase IV.	Palestina	90	798.949,00 €
EHE-2017BA/0008	Fundación Mundubat - Mundubat Fundazioa	Fortaleciendo la resiliencia de la población joven saharai en situación de refugio prolongado.	Saharako Errepublikak Demokratikoa	90	614.030,54 €
EHE-2017BA/0004	Asociación de Amigos y Amigas de la República Árabe Saharaui Democrática	Derecho al agua en los campamentos saharauis, fase II: fortaleciendo el sistema de abastecimiento doméstico de agua.	Saharako Arabiar Errepublikak Demokratikoa	77	799.172,72 €

2017ko uztailaren 31, astelehena

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Herrialdea	Puntuak
EHE-2017BA/0010	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional	Mejora de la seguridad alimentaria de la población rural a través de la reactivación de la agricultura, la ganadería y la protección del medioambiente en la sexta sección comunal debas de Lacroix y la séptima sección comunal de bras de Gauche, en la commune de Baintet, Haití	Haiti	72
EHE-2017BA/0007	Fundación Alboan	Soluciones duraderas para las personas centroafricanas refugiadas en el este de Camerún	Kamerun	71
EHE-2017BA/0001	Fundación Ayuda en Acción	Promover la educación, protección social y coexistencia pacífica de la población refugiada de Sudán del Sur afectada por el conflicto armado sur-sudanesés en los asentamientos del distrito de Adjumani al norte de Uganda	Uganda	70
EHE-2017BA/0009	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional	Apoyo a la reactivación y resiliencia de 12 comunidades pertenecientes a dos sectores rurales de la provincia de manabi, afectadas por el terremoto y el fenómeno el niño	Ekuador	57
EHE-2017BA/0005	Fundación UNICEF Comité Español. Delegación en la CAE	Mejora de la prevención el riesgo de desastres a través del incremento de capacidades nacionales y comunitarias en Nicaragua	Nikaragua	51

2017ko uztailaren 31, astelehena

III. ERANSKINA

ONARTU EZ DIREN ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Proiektua	Herrialdea	Ez onartzeko arrazoia
EHE-2017BA/0011	Asamblea de Cooperación Por la Paz	Estrategia marco de acción humanitaria para la protección de los derechos y la dignidad de la población palestina bajo ocupación conforme al DIH y el DIDH, con especial énfasis en la lucha contra la violencia de género y la protección de infancia	Palestina	Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak 1. Atalean 21. Artikuluan ezartzen duen betekizuna ez duelako ziurtatu, hau da, erakunde eskatzaileak ekintza humanitariorako plan estrategiko bat edukitzea